

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ekonomia Sustatzeko Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2/2022 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 11koa. Honen bidez, Berrikuntzari, Nazioartekotzeari eta Inbertsioari Laguntza Integrala emateko 3i dirulaguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira, 2022 urterako.

I

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren xedea Bizkaian aberastasuna eta kalitateko enplegua sortzen laguntzea da, Bizkaiko enpresa arloan lehiakortasun iraunkorra eta nazioartekotzea sustatuz eta, aldi berean, gure lurraldearen garapen orekatua erraztuz. Ildo horretan, estrategia integral bat jarri da abian, bost ardatz estrategikotan oinarritua: ekintzailatza eta azelerazioa; berrikuntza eta lehiakortasuna; erakartzea eta interkonexioa; lurralde-oreka, eta talentua eta ezagutza; hori guztia, balio erantsiko zerbitzuak modu eraginkorrean emateko konpromisotik abiatuta.

Misio horren esparruan, onartu nahi den Foru Dekretuaren xedea Berrikuntzari, Nazioartekotzeari eta Inbertsioari Laguntza Integrala emateko 3i dirulaguntza-programa arautzea da 2022 urterako, eta horren helburua da berrikuntza, inbertsioa eta nazioartekotzea uztartzen dituzten enpresetan inpaktu handiko proiektuei laguntza ematea. Zerbateko altuko laguntzak eskaintzen ditu, betiere estatuko laguntzei buruzko Europako araudian jasotakoa errespetatuz. Programa horrek Ekonomia Sustatzeko Sailaren laguntza eta zerbitzu multzoa osatzen du, eta Bizkairako estrategikoak diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza sendoa behar duten proiektuei zuzentzen zaie.

Ekonomia Sustatzeko Sailaren 2020-2023 aldiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoak dirulaguntzen lerro bat aurreikusten du enpresetan egindako berrikuntzako, inbertsioko eta nazioartekotzeko (3i) proiektuen laguntzarako, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorreretan urtero esleitzen dira horiek gauzatzeko behar diren kredituak. Horretarako, beharrezkoa da dirulaguntzoi buruzko araudia ezartzea.

Laguntza-plan honek, gainera, bat egiten du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskadi 2030 Planaren barruan ezarritako RIS3 espezializazio adimentsuko estrategian jasotako lehentasunekin, eta arreta berezia jartzen du industria adimentsuan, Euskadiko Industria 4.0. estrategian azaldutakoaren bidean.

II

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio xedapen honen xede den gaiaren gaineko eskumena, hala ondorioztatzen baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautaketa, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.2 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36 d) artikulua modu koordinatuan irakurrita. Lege horretan ezartzen denez, foru-aldundien berezko eskumena da garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko lankidetzaren ematea, arlo horretan gainerako administrazio publikoek dituzten eskumenekin bat etorritik.

Ekonomia Sustatzeko Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 17ko 207/2019 Foru Dekretuak Ekonomia Sustatzeko Foru Sailari esleitzen dio ondoren aipatzen den arloko jarduna: enpresen lehiakortasuna hobetzea, bereziki enpresa txikiena, berrikuntza ardatz nagusizat hartuta; industria sustatzea —batez ere, Bizkaiko lehentasunezko industria-sektoreak—; jakintzaren arloko zerbitzu aurreratuak indartzea; enpresa txiki eta ertainak nazioartekotzeko prozesua sustatzea; jarduera esportatzailea laguntzea, eta enpresen arteko lankidetzaren sustatzea.

**III**

Foru Dekretu honek betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak aurreikus-ten baitira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da; manuok bete egin dira xedapena egin eta izapidetzeko orduan, eta txosten hauek eman dira:

1. Genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa
2. Ekonomia Sustatzeko Sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
4. Memoria ekonomiko-administratiboa eta erregulazio onaren printzipioei buruzkoa.
5. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
6. Legezketasunari buruzko txostena.

Era berean, genero-ikuspegia jaso da Foru Dekretu hau prestatzeko orduan, kontuan hartuta zer xedatzen den arau hauetan: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretua, zeinaren bidez generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen baitira (ebaluazio hori 4/2005 Legean dago aurrez ikusita). Ildo horretan, lehen adierazi den bezala, Foru Dekretu honen izapidetzean generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena sartu da.

Era berean, kontuan hartu da zer ezarrita dagoen hala maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan (haren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira), nola Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzetarako prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gidan (Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

IV

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzak salbuetsirik daude aurretik Europako Batzordeari jakinarazi behar izatetik, hurrengo erregelamendua dela bide: 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamendua, Batzordearena, zeinaren bidez deklaritzen baitira, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuta, barne-merkatuarekin bateragarriak diren laguntzen kategoria jakin batzuk; eta Batzordearen 2020ko uztailaren 2ko 2020/972 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez aldatzen baitira 1407/2013 (EB) Erregelamendua, haren luzapenari dagokionez.

Aurreikusitako dirulaguntzak Eskualde Garapeneko Europako Funtsak kofinantza-tu ditzake, 2014-2020 aldirako Euskadiko EGEF Programa Operatiboaren esparruan. Programa horren helburua, batetik, eskualdean hazkunde ekonomiko jasagarria bul-tzatzea da, enpleguak sortuz —bereziki balio erantsi handiko sektoreetako jarduerak—; eta, bestetik, eskualdeko ekonomiaren lehiakortasuna hobetzea hazkunde-ekimen «adi-mendun» eta berritzaileen bidez.

V

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arau-tzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1. artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko Foru Dekretu bidez, aurretik zerbitzu juridikoak txostena emanda; eta Diru-la-guntzen Erregelamendua onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak duela haiek onesteko ahalmena.



Halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru-diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailetakoa gaiei buruzko Foru Dekretuen proiektuak onets ditzan. Horrela, bada, kasu honetan Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari dagokio Foru Dekretuaren proiektu hau proposatzea.

Hori dela bide, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2022ko urtarrilaren 11ko bileran aztertu ondoren, honako hau,

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra. — Oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea

2022 urterako Berrikuntzari, Nazioartekotzeari eta Inbertsioari Laguntza Integrala emateko 3i dirulaguntza-programako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira, eta honen ondoren doa haren testua.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Xedapen Gehigarri Bakarra. — Izaera pertsonaleko datuen babesa

Interesdunak ematen dituen datuak Foru Dekretu honetatik eratoritzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den honako xedapen hauetan: 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeri dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 95/46/EE Zuzentaraua (datuen babesari buruzko Erregelamendu orokorra) baliogabetzen duena; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.

Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarren batzuei lagako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo goian aipaturiko araudian ezartzen diren kasuetan izan ezik.

Edozein bide erabiliz eskaerak egin, eta interesdunek administrazio publikoen eskuetan dauden datu pertsonalak ematen badituzte, eskaeraren hartzailea den organoak beharrezko egiaztatze-lanak egiteko aukera izango du, dituen eskumenen barruan, datuak benetakoak direla egiaztatzeko.

Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko («ahaztua izateko eskubidea»), haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakien xede ez izatekoa (barne harturik profilen sorrera) ere, baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, edozein momentutan errebokatu ahal izango du emandako baimena. Horrez gain, eskubidea du erreklamazioa jartzeko Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzan. Gai honi buruzko informazio guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean dago eskuragarri, datuen babesari buruzko atalean (<https://web.bizkaia.eus/eu/datuen-babesa>).

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehen Xedapen Iragankorra. — Aurreko urteko 3i programa aplikatzea

2021eko Berrikuntzari, Nazioartekotzeari eta Inbertsioari Laguntza Integrala emateko 3i Plana dirulaguntza programa arautzen duten oinarriak eta deialdia onetsi zituen dira Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 13ko 34/2021 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskaeren ondoriozko itzultze-prozedurak, zehapen-prozedurak, errekursoak, berrikuspenak eta bestelako gorabeherak Foru Dekretu horretan ezarritakoaren arabera ebatziko dira.

**Bigarren Xedapen Iragankorra. — Jakinarazpen elektronikoa**

Ezarritako jakinarazpen elektronikoari buruzko betebeharrari dagokionez, jakinarazpena bitarteko elektronikoz egin behar denean prozedura ez badago teknikoki amaituta, jakinarazpena paperean egingo da, posta ziurtatuaren bidez.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA**Xedapen Indargabetzaile Bakarra. — Aurreko urteko 3i dirulaguntza-programa indargabetzea**

Foru Dekretu hau indarrean jartzen denean, indargabeturik geratuko da apirilaren 13ko 34/2021 Foru Dekretua; hala ere, aplikatu daiteke beraren indarraldiaren barruan sortutako egoeretan, lehenengo xedapen iragankorrean aurreikusitakoarekin bat.

AZKEN XEDAPENAK**Azken Xedapenetako Lehena. — Ahalmenak eskuordetzea**

1. Ahalmena ematen zaio Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, Foru Dekretu honetan xedatzen dena garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan, baita dirulaguntzen emakida ere.

2. Era berean, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio eskabideak aurkezteko epea luzatzea edo ixtea erabakitzeke, baldin eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan aurreikusitako kasua gertatzen bada edo aurrekontu-zuzkidura agortzen edo handitzen bada.

3. Era berean, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio beste dirulaguntza-deialdi batzuk egiteko, aurrekontuko diru-hornidura amaitu ezean.

Azken Xedapenetako Bigarrena. — Indarrean jartzea

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2022ko urtarrilaren 11n.

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua,
AINARA BASURKO URKIRI

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

**AURKIBIDEA****I. titulua. — Xedapen orokorrak**

1. oinarria. — Dirulaguntzaren xedea.
2. oinarria. — Definizioak
3. oinarria. — Dirulaguntzaren onuradunak.
4. oinarria. — Diruz lagundu daitekeen egitatea.
5. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.
6. oinarria. — Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.
7. oinarria. — Aurrekontuko zuzkidura.

II. titulua. — Araubide juridikoa

8. oinarria. — Araubide juridikoa.
9. oinarria. — Organo eskudunak eta erakunde laguntzailea.
10. oinarria. — Arau-haustea eta zehapenak.
11. oinarria. — Ez-betetzea eta dirulaguntza itzultzea.
12. oinarria. — Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea.

III. titulua. — Dirulaguntzak emateko prozedura

13. oinarria. — Dirulaguntza eskabideak aurkezteko lekua, era eta epea, eta ondorengo izapideak.
14. oinarria. — Eskabidea egiteko behar den dokumentazioa.
15. oinarria. — Eskabidea zuzentzea edo hobetzea.
16. oinarria. Dirulaguntza emateko prozedura.
17. oinarria. — Eskabideak baloratzeko irizpideak.
18. oinarria. — Ebazpena.
19. oinarria. — Errekurtsoak.
20. oinarria. — Dirulaguntzari uko egitea.
21. oinarria. — Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea.
22. oinarria. — Emandako dirulaguntzen publizitatea.
23. oinarria. — Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea.
24. oinarria. — Jakinarazpen elektronikoa.

IV. titulua. — Gauzatzea, justifikatzea eta kontrola

25. oinarria. — Gauzatzeko epea.
26. oinarria. — Justifikazio-epea.
27. oinarria. — Azpikontratazioaren baldintzak.
28. oinarria. — Dirulaguntzak justifikatzea.
29. oinarria. — Dirulaguntza ordaintzea.
30. oinarria. — Laguntzak metatzea.
31. oinarria. — Laguntzen bateragarritasuna.
32. oinarria. — Pertsona onuradunen beste betebeharrak.

**I. TITULUA****XEDAPEN OROKORRAK****1. oinarria.— Dirulaguntzaren helburua**

Dirulaguntza-programa honen bidez, helburu hauek lortu nahi dira:

- a) Bizkaiko enpresek egindako proiektu berritzaileak bultzatzea, inpaktu ahalmen handia dutenak.
- b) Berrikuntza, nazioartekotzea eta inbertsioa indartzea, hazkunderako eta enpresa hazkunderako eta jasangarritasunerako palanka gisa.
- c) Bizkaiko Lurralde Historikoan beren presentzia finkatzen eta garatzen duten enpresen proiektu estrategikoei eta eragin handikoei laguntza publiko bizia eskaintzea.

2. oinarria.— Definizioak

Oinarri eta deialdi hauen ondorioetarako, definizio hauek biltzen dira. Hemen islatu edo jaso ez den guztian 1tunaren 107 eta 108. artikulua (DO, L 187, 2014ko ekainaren 26an) aplikatuta barruko merkatuarekin bateragarriak diren laguntza-maila batzuk adierazten dituen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014/EE Araudian jasotako definizioak izango dira aginduzkoak (aurrerantzean, 651/2014 (EE) Araudi Orokorra):

1. «ETEE»: Honako hauek joko dira ETEEtzat: 651/2014 (EE) Araudi Orokorrarekin bat etorrita ekonomi jardura bat garatzen duen erakundea, enpresaren itxura juridikokoa eta berezko nortasun juridikokoa, 250 pertsona baino gutxiagoko plantilla duena eta 50 milioi euroko kopurua gainditzen ez duen negozio-bolumena duena edo urteko balantze orokorrean 43 milioi euroko kopurua gainditzen ez duena.
2. «Enpresa txikia»: Honako hau definitzen da enpresa txikitzat ETEEen kategorian: 50 pertsona baino gutxiagori okupazioa eskaintzen dien eta urteko negozio-kopuruak edo urteko balantze orokorrak 10 milioi euroko kopurua gainditzen ez duen enpresa.

Kasu bietan, enpresa eskatzailearen baliagarrien eta mugen zenbaketa egitean kontuan hartuko da elkartu edo loturiko enpresen baliagarrien batuketak, 651/2014 (EE) Araudi Orokorraren aipatutako I. eranskineko 4, 5 eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Langiletzat joko dira lan-kontratu baten bidez enpresari lotuta dauden pertsonak, Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean sartuta badaude.

Halaber, langiletzat joko dira lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileak, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartuta ez badaude ere, eta enpresan lan- edo lanbide-jardura garatzen duten pertsonak, baldin eta, beren izaeragatik, ezin badira Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta emanda egon, Segurtasunaren Lege Orokorraren testuategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 305.2 artikuluen b eta e letretan jasotakoaren arabera.

Seme-alabak edo mendetasuna duten pertsonak zaintzeagatik lansaioa murrizten den kasuetan, erakunde eskatzailearen beraren eskariz, murrizketa kontuan hartu gabe konputatu ahal izango dira lansaio horiek.

Urteko negozio-bolumena negozio-zifraren zenbateko garbiari dagokiola joko da, bai eta balantze orokorra aktibo osoari dagokiola ere; zenbateko garbia eta aktibo osoa, biak, enpresaren sozietateen gaineko zergaren azken aitortpenean (autolikidazioan) jasota daude.

3. «Produkzio-zentroa»: Antolamendu espezifiko duen ekoizpen-unitatea, hala alta emanda dagoena lan-agintaritzaren aurrean, lantoki bat osatzen duena Langileen Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 1.5 artikuluen arabera.



4. «Garapen experimentalak»: Zientziaren, teknologiaren, enpresaren eta abarren esparruetako jakintzak eta teknikak (aurretik existitzen zirenak) eskuratzeko, konbinatzea, itxuratzea eta erabiltzea, produktu, prozesu edota zerbitzu berrien, aldatuen edo hobetuen plan eta egitura edota diseinuak egiteko xedearekin. Barnean hartu ahal izango ditu, esate baterako, produktu, prozesu eta zerbitzuen kontzeptuen definiziorako, plangintzarako eta dokumentaziorako beste hainbat jardura.

Laguntza programa honen arabera, garapen experimentalak prototipo eta proiektu pilotuak garatzea ere barne har dezake, produktu, prozesu edo zerbitzu berrien edo hobetuen saiakuntza eta balioztatzea, funtzionamenduaren baldintza errealak diren ingurune adierazgarrietan, baldin eta helburu nagusia hobekuntza tekniko berriak ekartzea bada guztiz sendotua ez dauden produktu, prozesu edo zerbitzu horiei; prototipo eta edo proiektu pilotuen garapena ere diruz lagundu daitezke, ezinbestean, azken merkataritza-produktua denean eta bere fabrikazioa soilik erakusketa- eta balioztatze-helburuetarako garestiegi denean.

Garapen experimentalak ez ditu barne hartzen produktuetan, produkzio-lerroetan, fabrikazio-prozesuetan, existitzen diren zerbitzuetan eta martxan dauden bestelako jardueretan egindako ohiko edo aldizkako aldaketak, horrelako aldaketek hobekuntzak eragin baditzakete ere.

5. «Bideragarritasun-azterlana»: Proiektu baten indarra ebaluatu eta aztertzea, erabakiak hartzeko prozesua objektiboki eta zentzuz laguntzeko, haren puntu ahulak eta indartsuak eta aukerak eta erasoak aurkituz, eta hura burutzeko beharrezko baliabideak eta, azken batean, haren arrakasta-aukerak zehazteko, hain zuzen ere.
6. «Antolaketa inguruko berrikuntza»: Salerosketari, lantokiaren antolamenduari edo enpresak kanpokoekiko dauzkan harremanei antolaketa-metodo berria aplikatzea.

Ez dira haien artean sartuko jada enpresan erabiltzen ziren antolaketa-metodoetan oinarritutako aldaketak, kudeaketa-estrategian egindako aldaketak, bat-egiteak eta eskuraketak, prozesu bat bertan behera uztea, kapitala ordeztu edo handitze hutsa, faktoreen prezioa aldatu dela-eta sortutako eraldaketak, ekoizpen pertsonalizatua, toki erabilerei egindako egokitzapena, sasoiaren arabera edo bestela aldiari-aldiari egindako aldaketak eta produktu berrien edo nabarmen hobetuen salerosketa.

Honako hauek sartzen dira, besteak beste, antolaketa inguruko berrikuntza-aren barruan:

- a) Pertsonen eta taldeen protagonismoan oinarritutako antolaketa inguruko berrikuntza: lantokiaren antolaketa beste metodo bat aplikatzea antolaketa-aldaketa-prozesu baten bidez eta antolaketa kudeatzeko eretan, erakunde pertsonen proiektu horien inguruko gogoetan eta proiektu horien praktikan jartzeko prozesuetan modu zabal eta anitzean parte-hartzea ekarriz.
- b) Salerosketen antolaketa inguruko berrikuntza: merkatu berriak irekitzeko eta produktu eta zerbitzuak salerosteko bide berriak sortzeko berrikuntza, salerosketei edo enpresa batek dauzkan kanpoko harremanei antolaketa metodo berri bat aplikatzea ekarriz.
7. «Prozesu inguruko berrikuntza»: Ekoizpen- edo hornitze-metodo berri bat edo nabarmen hobetua aplikatzea (teknika, ekipo edota programa informatikoei egindako aldaketa nabarmenak barne), baldin eta haien helburua prozesuari balio erantsi handiagoa ematea bada.

Ez dira haien artean sartuko eraldaketa edo hobekuntza txikiak, aurretik ere erabiltzen ziren fabrikazio-sistema edo logistiken oso antzekoak sartuta lortutako ekoizpen- edo zerbitzu-gaitasunen hobekuntzak, prozesu bat bertan behera uztea, kapitala ordeztu edo handitze hutsa, faktoreen prezioa aldatu dela-eta sortutako eraldaketak, ekoizpen pertsonalizatua, sasoiaren arabera edo bestela



aldian-aldian egiten diren aldaketak eta produktu berrien edo nabarmen hobetuen salerosketa,

8. «Aholkularitza zerbitzuak»: Enpresatik kanpoko aholkularitza-zerbitzuko enpresek edo profesionalek berrikuntza eta nazioartekotzearen inguruko aholkularitza eta laguntza eskainitako zerbitzuak.

Zerbitzu horiek ez dira jarduera iraunkorrak edo aldian aldikoak izango, eta ez dute harremanik izango enpresaren ustiapen-gastu arruntekin, esaterako, aholkularitza fiskaleko ohiko zerbitzuak, aldian aldiko zerbitzu juridikoak edo publizitate-zerbitzuak.

Zerbitzu horien artean, honako hauek zehazten dira:

- a) «Berrikuntzaren inguruko aholkularitza-zerbitzuak»: Ezagutza-eskualdaketaren, aktibo ez-materialen eskuraketa, babes eta ustiapenaren eta haien eransten dituzten arau eta erregelamenduen erabileraren arloetako aholkularitza, laguntza eta prestakuntza
- b) «Inbertsioaren inguruko aholkularitza-zerbitzuak»: Teknologiaren eskualdaketaren eta eskuraketaren arloetako aholkularitza, laguntza eta prestakuntza.
- c) «Nazioartekotzearen inguruko aholkularitza-zerbitzuak»: Enpresaren nazioartekotzerako aholkularitza-zerbitzuak, honako hauek esaterako: nazioartekoaren inguruko diagnostikoa, gogoeta eta dibertsifikazio estrategikoa, nazioartekotze-planaren prestaketa, herrialdearen eta herrialde horretan egoteko eraren hautaketa, destino zehatz batean finkatzeko bideragarritasun tekniko edota ekonomikoa, finkatzeko balizko proiektuen gaineko bideragarritasun-azterlana, destinoko herrialde horretan eragiketarako has-teko beharrezko zerga-, finantza- eta lege-arazoei buruzko txostenak (akordioak, kontra-tuak...) merkatu-ikerketa, eta tokiko gizarte erakunde bantzaileen bilaketa eta hautaketa, teknikari espezializatuen hautaketarako laguntza edo nazioartekotze-planaren arabera identifikatutako merkatuetan sartzeko beharrezko bestelako ikerketa-jarduketa eta azterlan batzuk.

Zerbitzu horien artean ez dira sartzen balizko bezeroen zerrenden prestaketa, ezta merkataritzako agenteen eta ordezkarien kostua ere.

3. oinarria.— Dirulaguntzaren onuradunak

1. Berezko nortasun juridikoa daukaten enpresak izan daitezke dirulaguntzen onuradunak.

2. Aurreko atalean adierazitako erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte dirulaguntzaren onuradun izateko:

- a) Gutxienez ekoizpen-zentro bat izatea Bizkaiko Lurralde Historikoan, edo dirulaguntza eskatzen den proiektuaren gauzatze-aldiaren barruan ezartzea, proiektuaren emaitza gisa.
- b) Hauetariko jarduera izatea: industria, eraikuntza, garraioa, industriari lotutako zerbitzuak, turismoa eta handizkako merkataritza. Horretarako bere jardueretako bat gutxienez I. Eranskinean jasotako 2009ko Ekonomi Jardueren Sailkapen Nazionalako (EJSN) epigrafeen barruan egon behar du.
- c) ETEE izatea.
- d) 10 langile edo gehiago izatea, urteko lanaldi osoko baliokideetan. Honetarako erakunde eskatzaileari soilik dagozkion datuak hartuko dira. Langiletzat jotzeko 2.2 oinarrian adierazitakoa hartuko da kontuan.
- e) Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak.
- f) Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren (aurrerantzean 4/2018 Foru Araua) 42. artikulua ezarritako ezein egoeratan sartuta ez egotea.



- g) Ez egotea Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren (aurrerantzean 5/2005 Foru Araua) 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretak batean ere).

Baldintza guztiak bete behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, emakidak eta ordainketak egiten diren unera arte mantendu. Aurrekotik salbuetsita daude c) eta d) baldintzak eta 5/2005 Foru Arauaren 12.2.b) artikuluan ezarritako debekua, salbu eta konkurtso-likidazioaren fasea ireki dela aitortu bada; horiek biak eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean eta emakida egiten den unera arte mantendu behar ko baitira.

3. Ezingo dute deialdi honetan parte hartu, ezta onuradun izan ere, honako hauek:
- a) Sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak.
 - b) Ondasun-erkidegoak.
 - c) Sozietate zibilak.
 - d) elkarteak, fundazioak, federazioak, partidu politikoak eta erlijio erakundeak.

4. Foru Dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira krisian dauden enpresak, krisian dauden enpresa ez-finantzarioen salbamendu eta berregituraketako estatuko laguntzei buruzko Gidalerroetan (DO C 249 31n uztailaren 2014) haiei buruz jasotako definizioaren arabera.

5. Foru Dekretu honetatik kanpoan geratzen da esplizituki legez kontrakoa edo barruko merkatuarekiko bateraezin adierazi duen Batzordearen aurretiko adierazpen baten ondoren berreskuratzeko zain dauden enpresentzako banakako laguntzen ordainketa.

4. oinarria. — Diruz lagundu daitekeen egitatea

1. Erakundearen edozein eremutan (ekoizpen-prozesua, antolaketa, partaidetza, merkatua, jabetzaren babesa...) berrikuntza proiektuen bidez erakunde eskatzailearen lehiazeko gaitasuna hobetzera bideratutako jarduketak argi eta garbi estrategikoak, hari loturiko inbertsioak eta erakundearen negozio-ereduarekin koherenteak diren eta eragin handia duten nazioartekotzerako jarduketak dirulaguntza jaso dezaketen egitatetzat jotzen dira. Jarduketa horrek proposatutako hiru arloetatik (berrikuntza, inbertsioa eta nazioartekotzea) gutxienez bi betetzen dituen proiektu integral bat izan behar du eta enpresak Bizkaian duen zentro batean oinarrituta garatu behar da.

2. Ez dira diruz lagun daitekeen egitatearen barruan hartuko aurkeztutako proiektuaren zati nuklearrari guztiz uztartuta ez dauden edo harekin lotura gutxi edo loturarik ez duten jarduketak.

3. 651/2014 (EE) Araudi Orokorraren III. kapituluko 2. atalaren (17, 18 eta 19. artikulua) eta 4. atalaren (25, 28 eta 29. artikulua) arabera eta dekretu honen 2. oinarrian —definizioak— xedatutakoarekin bat etorruta, kategoria hauetan sar daitezkeen jarduketak bakarrik joko dira dirulaguntza jaso dezakeen egitatetzat:

- a) ETEEen aldeko inbertsioetarako laguntzak: aktiboetako inbertsioa.
- b) Aholkularitza-zerbitzuetarako ETEEentzako laguntzak: berrikuntza, inbertsio eta nazioartekotzerako aholkularitza-zerbitzuak.
- c) ETEEentzako laguntzak, merkataritzako azoketan parte har dezaten: atzerriko merkataritza-azoketako partaidetza.
- d) Ikerketa eta garapeneko proiektuetarako laguntzak: garapen esperimentaleko eta bideragarritasun-azterlanetako jarduerak.
- e) Prozesuetako eta antolaketako berrikuntzarako laguntzak: prozesuetako eta antolaketako berrikuntzako jarduerak.
- f) ETEEen aldeko berrikuntzarako laguntzak: Patenteen eta beste aktibo ez-material batzuen lorpena, baliozkotzea eta defentsa.

4. Dirulaguntza jasoko duten proiektuak eskabidea egin duen enpresan aplikatu eta ezartzeko modukoa izango da, enpresa bera izango da onuraduna eta bere jarduerarekiko koherentzia mantenduko da, eta soilik hartuko dira diruz laguntzeko modukotzat



Bizkaiko Lurralde Historikoko ekoizpen zentroetan zuzenean aplikatzeko diren jardueren gastuak.

5. Nolanahi ere, proiektuak sexu arrazoiengatik ez dira baztertzailerak izango, eta ahal dela, sexuaren arabera rolak eta estereotipoak ezabatu beharko dituzte.
6. Honako proiektu hauek ez dira diruz lagunduko:
 - a) I. eranskinean jasotako epigrafeen barruan dagoen enpresaren jardueraren bati zuzenean lotuta ez dauden proiektuak.
 - b) Erakundearentzat berrikuntzarik ekartzen ez duten proiektuak.
 - c) Kalitate kontrolari lotutako proiektuak, eta produktuak egokitzea merkatuak edo aplikatu beharreko arauak ezarritako berariazko betekizunetara.
 - d) Produktuaren birdefinizio estetikoak edo industri konplexutasunik gabeko aldaketak, markaren kudeaketa edo nortasun korporatiboaren kudeaketa beste helbururik ez duten proiektuak.
 - e) Plan estrategikoak, merkataritza-planak edo antzekoak eta haien berrikuspenak idazteko aholkularitza.
 - f) Produktuaren bizi-zikloari buruzko azterketak.
 - g) Plangintzarako pakete informatikoak (ERP, CRM, GMAO, etab., gisakoak) garatzeko proiektuak.
 - h) Kudeaketa-sistemen ezarpena.
 - i) «Funtsezko ikerketako» edo «industria ikerketako» proiektuak, «Ikerketa eta garapen eta berrikuntzako estatu laguntzei buruzko erkidegoko esparruak» egindako definizioaren arabera.
 - j) Atzerrian ekoizpena finkatzeko edo merkataritzako ordezkariak ezartzeko proiektuak.
 - k) 651/2014 (EE) Araudi Orokorrean zehaztutakoaren arabera esportazio-jarduerak.
 - l) Bizkaiko Lurralde Historikoko zentroetan aplikatu ezin diren proiektuak.
 - m) Definizioan (argitasuna, plangintza, egikaritzeko metodologia...) edo proiektuari esleitutako baliabideetan (baliabide teknikoak, giza taldea, zuzkidura ekonomikoak...) gabezia argiak dauzkaten proiektuak.
 - n) Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko Sailaren bestelako programa edo jarduketarako arloen barruan sar daitezkeen jarduerak.
 - o) Ekonomia Sustatzeko Sailaren helburuekin bat ez datozen edota Ekonomia Sustatzeko Sailaren eskuduntzen eremuan sartzen ez diren jarduerak.

5. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak

1. Diruz lagun daitezkeen gastuetatik joko dira proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten dioten eta epearen barruan egin diren beharrezko gastuak, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira:

2. Eskabidean aurkeztutako gastuetako bakoitza dekretu honen 4. oinarrian —diruz lagun daitezkeen egitatea— jasotako kategorien arabera sailkatuko da.

3. Kategoria bakoitzean diruz lagun daitezkeen gastu hauek daude zehaztuta:

a) Aktiboetako inbertsioak:

Honako hauek joko dira aktibotzat. lurrak, eraikinak eta instalazioak, softwareko lizentziak, makineria eta ekipoak diren aktiboak.

Inbertsioak honako hauek joko dira egiteko aktibo material edo inmaterialen inbertsioak izango dira: establezimendu berri bat sortzeko, lehendik zegoen establezimendu bat handitzeko, establezimendu baten ekoizpena ekoizpen berri gehigarri bidez dibertsifikatzeko edo lehendik zegoen establezimendu baten ekoizpen-prozesu orokorrean funtsezko aldaketa bat sartzeko.

Bereziki, makinarian eta ekipoetan egiten diren inbertsioak funtzionamenduan jarri behar dira lehenengoz.



Dirulaguntza jaso dezakete leasing modalitatearen bidez eskuratutako aktibo finkoetako inbertsioek, betiere kontratuan ondasuna eskuratzeko konpromisoa jasotzen bada. Kasu horietan, ondasuna eskuratzeko erabilitako zenbatekoa soilik joko da diruz lagundu daitekeen gastutzat, eta ez dira inolara ere onartuko finantza-errentamenduaren kontratuko baldintzak direla-bide aplikatzen diren finantza-gastuak eta komisioak.

- b) Berrikuntza, inbertsio eta nazioartekotzerako aholkularitza-zerbitzuak:
Kantoko aholkulariek berrikuntza, inbertsio eta nazioartekotzearen inguruan eskaintutako aholkularitza-zerbitzuen kostuak. Zerbitzu horiek ez dira jardura iraunkorak edo aldiari aldikoak izango, eta ez dute harremanik izango enpresaren ustiapen-gastu arruntekin, esaterako, aholkularitza fiskaleko ohiko zerbitzuak, aldiari aldiko zerbitzu juridikoak edo publizitate-zerbitzuak.
 - c) Atzerriko merkataritza-azoketako partaidetza:
Erakusketako standak alokatu, muntatu eta kudeatzeko gastuak.
 - d) Garapen esperimentaleko eta bideragarritasun-azterlanetako jarduerak:
 - i. Langile-kostuak.
 - ii. Zeharkako kostuak.
 - iii. Tresna eta makineriaren kostuak, proiekturako erabiltzen diren heinean eta denboran.
 - iv. Kontratu-ikerketei, ezagupenei eta kanpo-iturrien lizentzia bidez erositako edo lorturiko patentei dagozkien kostuek, betiere eragiketa erabateko lehia-ko baldintzetan eta proiekturako bakarrik badira.
 - e) Prozesuetako eta antolaketako berrikuntzako jarduerak:
 - i. Langile-kostuak.
 - ii. Zeharkako kostuak.
 - iii. Tresna eta makineriaren kostuak, proiekturako erabiltzen diren heinean eta denboran.
 - iv. Kontratu-ikerketei, ezagupenei eta kanpo-iturrien lizentzia bidez erositako edo lorturiko patentei dagozkien kostuek, betiere eragiketa erabateko lehia-ko baldintzetan eta proiekturako bakarrik badira.
 - f) Patenteen eta beste aktibo ez-material batzuen lorpena, baliozkotzea eta defentsa:
Europako, nazioarteko edo estatuko (baina nazioartekoan) patente-eskabideen aurkezpenei eta tramitazioari, baita Europako Erkidegoko, nazioarteko edo estatuko (baina nazioartekoan) erabilera edo diseinuko ereduena ere.
3. Langile-gastuak ikertzaile, teknikari eta gainontzeko langile laguntzaileekin zerkusia duten kostuak joko dira, proiektuan edo jardura egokian diharduten heinean. Kontzeptu horretan, erakunde eskatzailearen konturako karga sozialek eta gordin soldata eragindako zuzeneko langile-gastuei dagozkienak (Gizarte Segurantzaren) daude sartuta.
4. Pertsona bakoitzeko ordutegiko kostua kalkulatzeko horrela egingo da:

$$\frac{\text{G.S.K.O.} \times 12 \times 1,25}{\text{Urteko ordu kopurua}}$$

Non:

- a) G.S.K.O. gertaera arruntak direla-eta langileak Gizarte Segurantzari egin beharreko hileko kotizazio-oinarria da. Beste kotizazio-araubide batzuen mendeko pertsonen dagokienez, Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko oinarriarekin parekatutako oinarri bat hartuko da.
- b) Urteko ordu kopurua langileak, lan-hitzarmenaren arabera, urtean egin beharreko ordu-kopurua da, kasu bakoitzean lanaldiaren murrizketaren portzentajea



kontuan hartuta, halakorik egonez gero. Besterik adierazi ezean urteko 1.720 orduko hartuko dira.

5. Diruz lagun daitekeen oinarria kalkulatzeko orduan, gehienez 6 pertsona hartuko dira kontuan enpresa txikiak badira eta gehienez 12 gainerako ETEetarako.

6. Nolanahi ere, ez du gaudituko 240 orduko kopurua erakundeko eta hileko, enpresa txikien kasuan, ezta ere 480 orduko kopurua erakundeko eta hileko, gainerako ETEen kasuan.

7. Justifikazioan, esleipen-unean onar zitekeen gehieneko ordu-kopuru bera onartuko da, proiektuaren epeen aldaketak gorabehera.

8. Zeharkako gastuei dagokienez, berriz, erakundearen administrazio gastu orokorren zati proportzionalari dagozkionak dira (energia elektrikoa, telefonoa, administrazioko langileak, alokairuak...). Dirulaguntza jaso dezakeen oinarria kalkulatzeko orduan, onartutako langile-kostuen %15 onartuko da gehienez.

9. Honako hauek ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko:

- a) Dirulaguntzaren xedea den jarduerarekin inolako inola ere identifikatu ezin diren gastuak.
- c) Eskatzailearen eta hornitzailearen artean lotura dagoela erakusten duten gastuak. Ondorio horietarako, joko da lotura dagoela Sozietateen Gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 42.3 artikulua eta Merkataritzako Kodearen 42-49 artikuluek ezarritako kasuetan.
- d) Zergak eta tasak, BEZa bazter utzita (BEZa berreskuratu ezin den kasuetan ere bai), eta jabetza industrial babesteko prozesuei lotutako tasak kanpo utzita.
- e) Hornitzailea nor izango den adierazten ez duten gastuak edo inbertsioak.
- f) Bidaien, otorduen eta mantenuaren gastuak.
- g) Aktibo finkoak alokatzeko gastuak.
- h) Edozein kudeaketa-sistema ezartzeko gastuak.
- i) Defentsa legalak, eta beste erakunde fisiko edo juridiko batzuek patentearen eskabideari, erabilgarritasun ereduari edo diseinuari aurkeztutako alegazioen erantzunak edo aurkakotasunak sortutako gastuak.
- j) Jabetza industrialaren bulegoetako urteko ordainketak.
- k) 1.000 € (BEZa kenduta) baino gutxiagoko gastuen frogagiriak sortzen dituzten kanpoko gastuak edo kanpoko inbertsioak. Salbuespen gisa, beste gastu batzuk onartuko dira, baldin eta haien sortzapen edo ordainketa epetan edo erlotan zaitu bada, eta adierazitako zenbatekoa baino gutxiagoko justifikazio-agiriak sortzen badituzte; horretaz gain, seriean zehar trazabilitate argia egon behar da, dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren kontzeptu berari lotutako kopurua osoa 1.000 euro edo gehiago dela egiaztatzea ahalbidetzeko.

10. Ekonomia Sustatzeko Sailak uste badu gastuen aurrekontua antzeko gastuen batez besteko kostuarekin alderatu eta gehiegizkoa dela, dirulaguntzaren oinarria murriztu ahal izango du, gastuentzako zenbateko egoki eta proportzionalera arte..

11. Ondasun inbentariagarriak, baldin eta osorik edo zati batean dirulaguntzen bidez eskuratu, eraiki, birgaitu edo hobetu badira, dirulaguntzaren xede zehatzerako erabili beharko dira, gutxienez bost urtez erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunetan, eta bi urtez gainerakoetan.

12. Dena dela, diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean 9/2017 Legea) kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak (40.000 eurotik beherakoa, obra-kontratuak badira eta 15.000 eurotik beherakoa, hornitze- edo zerbitzu-kontratuak badira) gainditzeko dituenean, onuradunak, gutxienez, hiru hornitzaile ezberdinen eskaintzak eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, diruz lagundu daitezkeen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez bada nahikoa erakunderik halakorik hornitu edo eskaintzen duenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.



13. Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan jaso beharko dira edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran, eta haien artean aukeratzeko, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak hartuko dira kontuan, eta, proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzeko ez denean, aukeraketa memoria batean justifikatu beharko da espresuki.

14. Diruz lagun daitezkeen gastuaren balorazioa euroa ez den beste txanpon bat erabiliz eginez gero, fakturaren datan egingo da eurorako trukea.

15. 25. oinarrian ezarritako burutzeko epearen barruan (laguntza eskatzen den datatik 2023ko abenduaren 31ra bitartean, biak barne) sortutako eta fakturatutako gastuak lagundu ahalko dira diruz, beti ere 26. oinarrian ezarritako justifikatzeko azken egunera arte (2024ko martxoaren 31) ordainduta badaude. Kanpoko gastuetan fakturazio data hartuko da erreferentzia gisa sortzeko buruzko kontabilitate-printzipioa urratzen ez badu.

6. oinarria. — *Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua*

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatu da ondoko portzentaje hauek diruz lagun daitezkeen gastuei aplikatuz, kostu motaren arabera. Laguntzaren portzentajea eta gehieneko laguntza zehazteko, enpresa eskatzailea enpresa txikiaren kategorian edo beste ETE batzuenean kokatuko da, 2. oinarrian adierazitakoaren arabera.

Kategoria / Categoría	Laguntzaren gehieneko % % máximo de ayuda	
	Enpresa txikia Pequeña empresa	Beste ETE batzuk Otras PYME
Aktiboetako inbertsioa Inversión en activos	20	10
Berrikuntza, inbertsio eta nazioartekotzerako aholkularitza-zerbitzuak Servicios de consultoría para innovación, inversión e internacionalización	50	50
Atzerriko merkataritza-azoketako partaidetza Participación en ferias comerciales en el extranjero	50	50
Garapen esperimentaleko jarduerak eta bideragarritasun-azterlanak Actividades de desarrollo experimental y estudios de viabilidad	45	35
Prozesuetako eta antolaketako berrikuntza-jarduerak Actividades de innovación en procesos y organización	50	50
Patenteen eta beste aktibo ez-material batzuen lorpena, baliozkotzea eta defentsa Obtención, validación y defensa de patentes y otros activos inmateriales	50	50

2. Emandako laguntzen gehieneko zenbatekoak hauek izango dira erakunde eskatzaile bakoitzeko, lagundutako proiektu bakoitzean:

- Enpresa txikia: 450.000 euro.
- Beste ETEE batzuk: 500.000 euro.

3. Diruz lagun daitezkeen gutxieneko oinarria 500.000 euro izango da, kopuru horretatik gehienez %50 langile-gastuak izan daitezkeelarik.

4. Jarduketa burutzeko unea zein ere den, laguntza aurrekontuko ekitaldi bati edo hainbati esleitu ahalko zaie.

7. oinarria. — *Aurrekontuko zuzkidura*

1. Deialdi honetan eman daitezkeen laguntzak eta onurak, guztira 5.800.000,00 euro, jarraian zerrendatuko diren aurrekontu-partiden kontura ordainduko dira; ondoren adierazten diren gutxi gorabeherako kopuruetan banakatuko dira, eta haien muga partida bakoitzean ezarritako guztizko kopurua izango da:

Urtekoa	Aurrekontuko partida	Zenbatekoa (€)
2022	0802/G/426107/44300 2015/0025	400.000,00
2023	0802/G/426107/44300 2015/0025	400.000,00



Urtekoa	Aurrekontuko partida	Zenbatekoa (€)
2022	0802/G/426107/74300 2015/0025	2.500.000,00
2023	0802/G/426107/74300 2015/0025	2.500.000,00

2. Aurrekontuei buruzko Foru Arau Orokorrari buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duen abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen 56. artikuluan xedatutakoaren babesean, Foru Dekretu hau aurretiaz izapidetzen da, eta, horrenbestez, deialdi honetan ageri den gehieneko zenbatekoa gutxi gorabeherakoa da. Ondorioz, dirulaguntzak emateko, beharrezkoa izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea eskabideak ebazten direnean.

3. Deialdi honetan ageri den gehieneko zenbatekoa gutxi gorabeherakoa da eta, beraz, 5/2005 Foru Araua garatzeko dirulaguntzen erregelamendua onesten duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren (aurrerantzean 34/2010) 41.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen aldatu ahal izango dira aurrekontu-kredituak, Gobernu Kontseiluak onetsitako Foru Dekretu baten bidez, kontuan izanda zein den, aurreikuspenen arabera, eskatutako dirulaguntzen zenbateko osoa. Hala eginez gero, eskabideak aurkezteko epea luzatu behar izango da.

4. Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikulua babesean, aurrekontuko zuzkiduren guztizko zenbatekoa handitu ahal izango da, gehienez ere 1.000.000 euro, bai eskuragarri dauden kredituak gehitu direnean —kreditu-zabalkuntza, -sorrera edo -txertatzearen ondorioz—, bai kopuru osagarri bat dagoenean —aurreko deialdietako eskaerak aurreikusi baino zenbateko txikiagoan ebaztearen ondorioz—. Kasu horietan, kreditu osagarri hori soilik izango da eraginkorra baldin eta kreditu horren erabilgarritasuna adierazita badago. Adierazpen hori dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik egin beharko da. Handitze hori eskumena duen organoak baimendu beharko du.

5. Deialdiko eskabide guztiak ebatzi ondoren, guztira dirulaguntzetarako emandako diru kopurua aurrekontu-muga baino txikiagoa balitz, gastu-baimenaren ezeztapena tramitatuko litzateke, soberan den zenbatekoan, Foru Dekretu hau aldatu beharrik gabe.

II. TITULUA

ARAUBIDE JURIDIKOA

8. oinarria.— *Araubide juridikoa*

1. Deialdi honetan ezarritako dirulaguntzak Europar Batasuneko funtsen kontura finantzatuko dira, eta, beraz, arau hauen arabera arautuko dira: Batasuneko Europako funtsei buruzko xedapen erkideak ezartzen dituen abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamenduak (aurrerantzean 1303/2013 (EB) Erregelamendua), arau horien garapen- edo transposizio-arauak eta oinarri hauek.

2. Halaber, Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduari lotuta daude. Erregelamendu horren bidez, laguntza-kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarri deklaritzen dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua eta 651/2014 (EB) Erregelamendua aldatzen duen Batzordearen 2021/1237 (EB) Erregelamendua aplikatuz.

3. Aurreko apartatuan aurreikusi ez denean, dirulaguntza hauek araudi honen arabera arautuko dira: 5/2005 Foru Araua, 34/2010 Foru Dekretua, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

9. oinarria.— *Organo eskudunak eta erakunde laguntzailea*

1. Espedienteak Berrikuntza Zerbitzuak antolatu eta izapidetuko ditu, Enpresen Lehiakortasuna Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiaren agindupean.

2. Espedienteen ebaluazioa ebaluazio-batzorde batek egingo du. Batzorde hori honela osatuko da:

- a) Epaimahaiburua: Berrikuntzako zerbitzuko burua edo hark eskuordetutako pertsona.



- b) Kideak:
- 1) Berrikuntza eta Lehiakortasuna bultzatzeko ataleko burua edo hark eskuordetutako pertsona.
 - 2) Berrikuntza Zerbitzuan lanpostu tekniko bat betetzen duen pertsona bat, zerbitzuburuak izendatua.
 - 3) Erakunde laguntzailean den Beaz SAUk, izendatutako pertsona bat.
 - 4) Erakunde laguntzailean den Beaz SAUk, izendatutako pertsona bat.
- c) Idazkaria: Berrikuntza eta Lehiakortasuna bultzatzeko ataleko burua edo hark eskuordetutako pertsona.

Lehendakariak kalitate-botoa izango du berdinketak ebazteko, eta idazkariak ahotsarekin eta botorik gabe jardungo du.

3. Ebaluazio-batzorde hau osatzeko orduan, kontuan hartu beharko da bi sexuen artean ordezkari-tza orekatuta egotea. Horrek esan nahi du bi sexuek nahikotasunez ordezkari-tza egon behar dutela, hala ezartzen baita Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen (aurrerantzean 4/2005 Legea) 20. artikuluan eta 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan.

4. Espedienteak ebaztea Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari dagokio, instrukzio-organoak eta Enpresen Lehiakortasuna Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiko tituluarrak proposatuta, ebaluazio-batzordeak txostena eman ondoren.

5. Beaz, S.A.U., sozietateak erakunde laguntzaile gisa jardungo du, Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetzat-hitzarmenean xedatutakoa betez, eta hitzarmen horretan eta oinarri arautzaile hauetan adierazten diren eginkizunak beteko ditu. Era berean, indarrean dagoen dirulaguntzei buruzko araudiaren ondoriozko betekizunak eta betebeharrak bete beharko ditu.

6. Lankidetzat-hitzarmena alde zuzenetik suntsiarazten bada, hitzarmena suntsiarazteko akordioan jasotzen diren jarraibideei jarraituko zaie.

10. oinarria. — Arau-haustea eta zehapenak

1. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren IV. tituluan xedatzen dena izango da.

2. Aplikatu beharrekoa izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea (aurrerantzean 39/2015 Legea) ezarritakoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 40/2015 Legea ezarritakoa, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Eusko Legebiltzarren otsailaren 20ko 2/1998 Legea aurreko manuari kontra egin gabe xedatzen dena.

11. oinarria. — Ez-betetzea eta dirulaguntza itzultzea

1. Jarraian aipatzen diren kasuetan, itzuli egin beharko dira jasotako dirulaguntza, dirulaguntza ordaindu den unetik itzultzea erabakitzen den datara bitartean dagozkion berandutza-interesak, eta, hala badagokio, galdu egingo da dirulaguntza kobratzeko eskubidea.

- a) Oinarri hauetan, emakidaren ebazpenean edo aplikatu beharreko araudian ezarritako betebeharrak edo baldintzak bat betetzen ez denean.
- b) 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo 34/2010 Foru Dekretuan aurreikusitako kausaren bat gertatzen denean.

2. Itzuli beharreko diru-kopuruak zuzenbide publikoko sarreratzat joko dira, ondorio guztietarako.

3. Itzuli beharreko zenbatekoei aplikatu beharreko berandutze-interesa 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan aurreikusitakoa izango da.

4. Dirua itzultzeko prozedura 5/2005 Foru Arauaren II. tituluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren III. tituluan xedatutakoaren arabera izapidetuko da.



5. Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak ez betetzeak mailakatzeko irizpideak honako hauek izango dira:

- a) Dirulaguntza ematea eragin zuen proiektuaren gastua ez bada xedatzen deialdian ezarritako epean, emandako dirulaguntza osoa galduko da.
- b) Dirulaguntza ematea eragin zuen jarduketaren gastuaren zati bat soilik xedatzen bada deialdian ezarritako epean, galdu egingo da xedatu ez den zatiari dagokion dirulaguntza, betiere xedapen partzial horrek diruz lagundutako jarduketaren helburua lortzea eragozten ez badu.
- c) Jarduketa gauzatzeko epeak betetzen ez badira, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, berandutze-interesekin batera. Hala ere, jarduketak ez badira amaitu epe orokorrean edo luzapen-epean, baina zatiren bat epe barruan egin bada, epe barruan egin ez den zatiaren dirulaguntzaren zenbatekora mugatuko da itzultzeko betebeharra, baldin eta gauzatze partzial horrek ez badu eragozten jarduketaren xedea lortzea.
- d) Ekintzak edo gastuak gauzatu edo justifikatzean ez-betetze partziala gertatzen bada, itzuli beharreko zenbatekoa proportzionaltasun-irizpidearen arabera zehaztuko da, dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzen entitatea eta ez-betetze maila kontuan hartuta.
- e) Gehiegizko finantzaketa gertatzen bada, aldi berean beste laguntza batzuk jaso direlako —5/2005 Foru Arauaren 18.3. artikuluan jasotako balizkoa—, behar denaren gainetik jasotako kopurua itzuli beharko da, eta kopuru horri dagokion berandutze-interesa ezarriko zaio.
- f) Oinarri hauetan ezarritako gainerako betebeharrak betetzen ez badira, emandako dirulaguntza osorik edo zati batean galduko da, oinarrietan xedatutakoaren arabera, eta, berariazko aurreikuspenik ezean, itzuli beharreko zenbatekoa proportzionaltasun-irizpidearen arabera ezarriko da, ez-betetzeak lortu nahi den helbururako duen garrantzia eta interes publikorako duen garrantzia kontuan hartuta.

12. oinarria. — Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea

1. Onuradunak berak Administrazioaren aurretiazko errekerimendurik gabe egindakoa da borondatezko itzulketa.
2. Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak dagozkion berandutze-interesak kalkulatuko ditu 5/ 2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera eta pertsona edo erakunde onuradunak behin betiko itzulketa benetan egin duen unera arte.
3. Onuradunak berak bere borondatez itzuli nahi badu dirulaguntza, ordainketa-gutuna erabili beharko du, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofizialaren arabera.

III. TITULUA

DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

13. oinarria. — Dirulaguntza-eskabideak aurkezteko lekua, era eta epea eta ondorengo izapideak

1. Dirulaguntza-programa honetan parte hartu nahi duten pertsonak konpromisoa hartuko dute Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez (<http://www.bizkaia.eus/sustapena-oficinavirtual>) dirulaguntza jasotzeko eskaera formalizatzeko, dokumentazioa bidaltzeko, justifikazioak egiteko, errekursoak jartzeko, alegazioak egiteko, dagoeneko irekita dauden espedientei buruzko aldaketak aurkezteko eta edozein izapide egiteko. Izan ere, kontuan izanik erakundeon gaitasun ekonomiko eta tekniko eta haien dedikazio profesionala, ulertu behar da bermaturik dutela behar diren bitarteko teknologikoak eskuratu eta erabiltzeko modua, 39/2015 Legearen 14. artikularekin bat etorrita.



2. Interneten aurkeztu behar dira eskaerak, «Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtuala» atalean, Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orri instituzionaleko egoitza elektronikoan.

3. Bulego birtualean sartzeko, bertan adierazten den indarreko araudiaren arabera onartutako identifikazio eta sinadura elektronikoko edozein bide erabili ahal izango da. Bitarteko horiei esker, eskaerak egin daitezke pertsona juridikoen ordezkari gisa. Identifikazio eta sinadura elektronikorako B@kQ txartela erabili nahi izanez gero, jakinarazten da Ekonomia Sustatzeko Sailaren egoitzan eskura daitekeela (Orueta apezpikua, 6, Bilbo).

4. Eskabidea aurkezteko ezinbestekoa izango da pertsona hori Ekonomia Sustatzeko Sailaren erakunde eta pertsona fisikoen erregistroan alta emanda egotea (erregistro hori Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 14ko 109/2016 Foru Dekretuan araututa dago). Egoera horretan ez badago, pertsona edo erakunde horrek inskripzio-eskabidea bete beharko du bulego birtualean, dirulaguntza-eskabidea izapidetu baino lehen.

5. Eskabideekin batera, hurrengo oinarrian adierazitako dokumentazioa aurkeztu behar da, bulego birtualean dagoen agiriak eransteko sistema erabilia. Era berean, eskabide horietan eskatutako informazioa aurkeztu beharko.

6. Hona eskabideak aurkezteko epea: 2022ko otsailaren 8ko 8:30etatik 2022ko otsailaren 25eko 13:30era.

14. oinarria. — Eskabidea egiteko beharrezko dokumentazioa

1. Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez aurkeztutako eskabideak bulego birtualaren bidez bete eta aurkezteko dauden eredu espezifikoaren arabera-koak izango dira, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira.

2. Laguntza-eskaera bat (1) aurkeztu ahal izango da eskatzaile bakoitzeko. Beraz, eskabidea izaera orokorreko proiektu bati egokituko zaio.

3. Erakunde batek baimendutako gehieneko kopurua gainditzen duen eskabide kopuru bat aurkezten badu, organo instruktoarak eskatzaileari jakinaraziko dio, eta 10 eguneko epea emango dio eskabideetako batzuei uko egiteko, bere nahierara. Berariazko erantzunik jaso ezean, baimendutako gehieneko kopurua soilik hartuko da kontuan, eta horretarako, eskaerak sarrera-erregistroan duten zenbakia hartuko da aintzat.

4. Agiri administratibo eta tekniko hauek aurkeztu behar dira eskabideekin batera:

- a) Eskabide telematikoa, 13. oinarrian ezarritakoaren arabera.
- b) Ekonomia Sustatzeko Sailaren web gunean eta bulegoetan eskura daitekeen ereduaren arabeko eskabidea.
- c) Eskuragarri dagoen Langile Izendun Zerrenda RNT (aitzineko TC2a) berriena. Enpresari lotutako langile autonomoak badaude, pertsona bakoitzaren kotizazio-oinarrien azken txostena ere (eskuragarri dagoen azken hileko kotizazioa barne) erantsiko du.
- d) Enpresak baldin badauzka, indarrean dauden ziurtapenak eta/edo planak, berdintasun, ingurumen, euskararen sustapen eta enpresa erantzukizun sozialekoak, bai eta erakunde publiko eskudunek emandako aintzatespenak eta diploma ere.
- f) Hartzekodunaren fitxa, Bizkaiko Foru Aldundiko webgunean dagoen eredu ofiziala, Bizkaiko Foru Aldundian banku-helbideratzeari buruzko datuak ez badaude edo dauden datuak aldatu nahi badira. Dokumentazio osoa dagoela jotzen den data zehazterakoan ez da kontuan hartuko hartzekodunaren fitxa, espedientearen ebazpena emateko ondorioetarako.

5. Proiektua baloratzeko ondokoak hartuko dira kontuan jasotako agiriak eta proiektuan parte hartuko duten enpresako pertsonekin egindako elkarriketan bildutako informazioa.

6. Ekonomia Sustatzeko Sailaren Berrikuntza Zerbitzuak, Bizkaiko Elkarrengarritasun Nodoaren bidez eta dagozkion elkarrengarritasun-zerbitzuen bidez, aurkeztu diren eskabideen administrazio-izapideak egiteko eskatutako pertsona eta erakunde



interesdunen datuak egiaztatu eta kontsultatuko ditu, 39/2015 Legearen 13., 28. eta 53. artikuluetan aitortutako eskubideei kalterik egin gabe.

Laguntza-eskaerak berekin ekarriko du beste bitarteko batzuen bidez beste administrazio publiko batzuetatik informazio egokia lortzeko baimena, baldin eta arrazoi teknikoengatik ezin bada lortu elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez.

Arrazoi teknikoak direla eta, ez bada posible informazioa zuzenean beste administrazio batzuetatik eskuratzea, Ekonomia Sustatzeko Saileko Berrikuntza Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

15. oinarria. — Eskabidea zuzentzea edo hobetzea

1. Eskabideak elektronikoki edo behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera Foru Dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, errekerimendua egingo zaio interesdunari, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela.

2. Instrukzio-organoak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia bildu ahal izango du.

16. oinarria. — Dirulaguntza emateko prozedura

1. Norgehiagoka da dirulaguntzak emateko erabiliko den prozedura; horretarako, deialdi eta hautaketa-prozedura bakarrik egingo dira.

2. Foru Dekretu honen ondorioetarako, honako hau jotzen da norgehiagoka prozeduratzat: dirulaguntzak emateko, aurkeztu diren eskabideak konparatzea, eta, aurretik ezarritako ebaluazio-irizpideen arabera, lehentasun-hurrenkera ezartzea, erabilgarri dagoen kredituaren arabera, puntuazio handiena lortu dutenei dirulaguntzak adjudikatzeko.

17. oinarria. — Eskabideak baloratzeko irizpideak

1. Eskabideak irizpide eta azpi-irizpide hauen arabera baloratuko dira eta ponderazio hau emango zaie:

- a) Proiektuaren eragina (25 puntu):
 - a.1) Proiektuak enpresaren hazkundean izan dezakeen eragina (15 puntu).
 - a.2) Proiektuak Bizkaian izan dezakeen trakzio-efektua (10 puntu).
- b) Proiektuak enpresaren lehiazteko gaitasunean izan dezakeen eragina (55 puntu):
 - b.1) Berrikuntza maila (10 puntu).
 - b.2) Nazioartekotze-maila (10 puntu).
 - b.3) Inbertsioak lehiazteko gaitasunari egindako ekarpena (10 puntu).
 - b.4) Proiektuak enpresaren estrategiarekin eta negozio-ereduarekin duen koherentzia (25 puntu).
- c) Proiektuaren definizioa eta aurkeztutako proposamenaren kalitatea (15 puntu):
 - c.1) Proiektuaren plangintza eta kudeaketa (5 puntu).
 - c.2) Proiektuaren helburuak, adierazleak eta jarraipen-sistematika (5 puntu).
 - c.3) Proiekturako jarritako baliabide tekniko eta humanoak (5 puntu).
- d) Enpresaren konpromiso soziala eta iraunkortasuna (3 puntu).

Irizpidea honetan, kontuan hartuko da enpresak ziurtagiriak eta /edo planak izatea arlo hauetan: ingurumenaren iraunkortasuna, genero-berdintasuna, euskararen sustapena eta erantzukizun sozial korporatiboa.
- e) Gizonen eta emakumeen parte-hartze orekatua proiektuan (2 puntu).

Irizpide honetan, kontuan hartuko dira proiektuan parte hartuko duten enpresako langileetako gizonen eta emakumeen kopurua eta proiektuan gizonen eta emakumeen duten erantzukizunen banaketa.



2. Gutxienez 40 puntu eskuratu beharko dira, jarduerak edo proiektuak laguntza jaso ahal izan dezan.

3. Berdinketa gertatuz gero, a) irizpidean lortutako puntuazioa hartuko da kontuan. Berdinketak jarraitzen badu, b) irizpideko puntuazioa hartuko da kontuan. Eta berdinketak jarraitzen badu, eskabideen sarrera-ordena hartuko da kontuan.

18. oinarria. — Ebazpena

1. Espedientearen instrukzioa amaitutakoan, ebaluazio-batzordeak aztertu eta irizpena eman ondoren, organo instrukzio-egileak ebazpen-proposamena egingo du, eta Enpresen Lehiakortasuna Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiko titularrari helaraziko dio. Azken horrek, era berean, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari igorriko dio ebazpen-proposamena, eta hark dagokion foru-aginduaren bidez ebatziko du. Ebazpenean erabakiko da bai dirulaguntzak ematea, bai ezestea edo ez ematea.

2. Ebazpenean, emandako laguntzen, ezetsien eta eman ez diren laguntzen zerrenda jasoko da, eta, hala badagokio, horietako bakoitzari emandako puntuazioa adieraziko da, aurreikusitako balorazio-irizpideen eta ezesteko eta ez emateko arrazoen arabera.

3. Dirulaguntza emateko ebazpenean, baldintza bereziak ezarri ahal izango dira, baldin eta uste bada ezen, proiektuen izaera berezia edo gertatzen diren beste inguruabar batzuk direla bide, egoki dela halako baldintzak ezartzea, hartara kasu bakoitzari egokitzeko eta aplikatzeko Foru Dekretu honetan edo aplikatzekoak diren gainerako arauetan xedaturikoa.

4. Eskaturiko dirulaguntza eman, ezetsi edo eman ez izana adierazten duen ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.

5. Ebazpena jakinarazi ondoren, hamar (10) eguneko epea izango dute onuradunek ebazpena onartzeko, eta epe hori berenberegiko adierazpenik egin gabe igarotzen bada, ebazpena isilbidez onartu dela ulertuko da.

6. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea sei (6) hilabetekoa izango da gehienez, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta. Epe horretan ebazpenik ematen ez bada, eskaera ezetsizat joko da, administrazio-isiltasuna dela eta.

19. oinarria. — Errekurtsoak

1. Ebazpenak administrazio-bidea agortzen du, eta, 39/2015 Legearen 114., 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera, interesdunak aukerako berraztertze errekurtoa aurkeztu ahal izango dio Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, hilabeteko (1) epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

2. Era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri ahal da administrazioarekiko auzien Bilboko epaitegiaren aurrean —txandaren arabera dagokiona—, bi (2) hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatuta, kontuan harturik zer ezartzen duen Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

3. Ezin izango dira bi errekurtsook aldi berean jarri.

20. oinarria. — Dirulaguntzari uko egitea

1. 34/2010 Foru Dekretuaren 48.3. artikuluan arautzen denarekin bat, onuradun gertatu den pertsona batek dirulaguntzari uko egiten badio, dirulaguntza ematen duen organoak erabaki dezake zerrendan hurrengo datozen eskatzaileei ematea puntuazioaren arabera, baldin eta nahikoa kreditu geratu bada aske kasuan kasuko eskabideei erantzuteko.

2. Dirulaguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die pertsona edo erakunde interesdunei, dirulaguntzaren proposamena onar dezaten, hamar (10) egun balioduneko epean; epe hori ezin da luzatu. Behin eskatzaileek proposamena onartuta, administrazio-organok dirulaguntza emateko egintza emango du, eta haren jakinarazpena egingo du.



3. Uko egitea aurkezteko gehienezko epea hamar (10) egun baliodunekoa izango da, interesdunari dirulaguntzaren proposamena jakinarazten zaionetik hasita. Epe hori igarota, hortik aurrera uko egiterik gertatzen bada, dirulaguntza emateko baldintzak ez direla bete joko da.

21. oinarria. — Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea

1. Pertsona onuradunek, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen, baimena eska diezaioke Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, diruz lagundutako jardueraren ebazpenean aldaketak egin ahal izateko, hala nola, finkatutako epeak luza-tzea, emandako zenbatekoa murriztea edo jarduera osatzen ekintzak aldatzea. Aldaketa horiek baimenduko dira ezohiko inguruabarrak daudenean edo jarduera ondo gauza-tzeko beharrezkoak direnean, betiere dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarren pertsonen eskubideei kalte egiten ez bazaie. Aldaketa-eskaerak diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino hilabete (1) lehenago aurkeztu beharko dira gutxienez.

2. Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak ofizioz alda dezake dirulaguntza emateko ebazpena, onuradunari entzunaldia eman ondoren eta funtsak aplikatu aurretik; horretarako, bi baldintza hauek bete behar dira: batetik, laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzen aldaketek ezin izango dute eragotzi edo oztopatu laguntzaren bidez lortu nahi zen interes publikoa, eta, bestetik, ezingo zaio kalte ekonomikorik eragin onuradunari.

3. Dirulaguntzaren onuradunak, berak aurkeztutako justifikazioan, adierazten badu aldaketa batzuk egon direla dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetan, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekar lezaketenak, eta aldaketa horiek guztiak onartzeko ez bada bete aurretik bete beharreko baimen administratiboko izapidea, orduan, dirulaguntza eman duen organoak onartu egin dezake aurkeztutako justifikazio hori, betiere onartze horrek ez badie kalterik eragiten hirugarrenen eskubideei; hala ere, horrek ez du salbuesten pertsona onuraduna 5/2005 Foru Arauaren arabera izan ditza-keen zehapenetatik.

22. oinarria. — Emandako dirulaguntzen publizitatea

1. Dirulaguntza eman den urte naturala amaitu ondorengo lehen hiruhilekoa amaitu baino lehen, Ekonomia Sustatzeko Sailak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko ditu deialdi publiko honen ondorioetarako emandako dirulaguntzak, honako hauek adierazi-ta: deialdia, aurrekontuko zer programari eta kredituri egozten zaizkion, onuradunaren izena edo sozietate-izena eta haren identifikazio fiskaleko zenbakia, emandako zenba-tekoa, dirulaguntzaren helburua edo helburuak, eta diruz lagundutako programak edo proiektuak. Urte askotako dirulaguntzen kasuan, emandako zenbateko osoa eta urte-koen banaketa. Era berean, Europar Batasuneko funtsen kargurako finantzaketa dagoe-la eta, hala badagokio, finantzaketaren ehunekoa adierazi beharko ditu.

2. Laguntza onartzeak berekin dakar Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamenduan ezarritakoa aplikatzea (Eu-ropar Batasuneko funtsen inguruan estatu kideek egin behar dituzten informazio- eta publizitate-jarduerei buruzkoa).

23. oinarria. — Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea

1. Onuradunek diruz lagundutako jarduketaren finantzaketa publikoaren publizita-tea egin beharko dute. Horretarako, lagundutako jarduketaren zabalkunde publikorako egi-ten dituzten material, argitalpen eta ekitaldi guztietan, jasotako laguntza aipatu beharko dute era honetan: «Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu du proiektu hau, 2022ko 3i Pro-gramaren barruan eta Feder funtsaren kofinantziazioa ere badauka / Este proyecto ha sido financiado por la Diputación Foral de Bizkaia dentro del Programa 3i 2022 y cuenta con cofinanciación del Feder». Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Europar Batasunaren ikur ofizialak ere jarri beharko dituzte, erraz ikusteko leku batean.

2. Era berean, Europako Erkidegoko araudiak informazioaren eta komunikazioaren arloan ezarritako eskakizunak bete beharko dituzte (EGEF 2007-2013 Programa Ope-



ratiborako eta EGIF 2007-2013 Programa Operatiborako Batzordearen 1828/2006 (EE) Erregelamenduaren 8. eta 9. artikulua, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014-2020 EGEF Programa Operatiborako eta EGEF 2014-2020 Programa Operatiborako 1303/2013 (EE) Erregelamenduaren XII. eranskineko 2.2 puntuan ezarritakoaren arabera).

24. oinarria. — Jakinarazpen elektronikoa

1. Erakunde interesdunei egindako jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera.

2. Bitarteko elektronikoen bidezko jakinarazpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoa agertuz egingo dira (<https://www.ebizkaia.eus>) araudi bi hauetan ezarritakoaren arabera: Bizkaiko Foru Aldundiaren 62/2015 Foru Dekretua, maiatzaren 5ekoa, Administrazio Elektronikoa buruzkoa, eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren 4841/2016 Foru Agindua, ekainaren 6koa, jakinarazpenak eta komunikazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa agertzeko sistemaren bidez egiteari buruzkoa.

3. Egindako jakinarazpen elektronikoa eskuragarri jartzeari buruzko abisuak eskabidean aurkeztutako helbide elektronikora bidaliko dira. Horretarako, eskaera bete ondoren, ofizioz eskumena duen organo edo unitateak alta emango dio helbide elektronikoa horri Bizkaiko Foru Aldundiaren prozeduren katalogoko dirulaguntzen prozedura honetarako aipatutako egoitza elektronikoa abisu-sisteman. Abisu horiek ez dute, inola ere, jakinarazpen-ondoriozko izango, eta horiek ez egoteak ez du eragotziko jakinarazpena guztiz baliozkotzat jotzea.

4. Jakinarazpenak egindakotzat joko dira edukira sartzerakoan, eta ezetsizat jakinarazpena eskura jartzen denetik hamar egun natural igarotzen direnean edukira sartzetik gertatu ez denean.

IV. TITULUA

GAUZATZEA, JUSTIFIKATZEA ETA KONTROLA

25. oinarria. — Gauzatze epea

1. Diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak laguntza-eskabide aurkeztu ondoren eta 2022ko abenduaren 31 baino lehen hasi beharko dira eta 2023ko abenduaren 31 baino lehen amaitu.

2. Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak gauzatze epea luzatu ahal izango du, hurrengo apartatuetan adierazitakoaren arabera.

3. Onuradunak gauzatze epea luzatzeko eskatu ahal izango du, honako baldintza hauek betez gero:

- Alegatutako arrazoiak gertatu eta izandako edo izan daitekeen atzerapena egiaztatzen ahal izateko eskatu beharko da berehala, eta, nolanahi ere, gauzatze epea amaitu baino gutxienez hilabete bat (1) lehenago.
- Gauzatze epea luzatzea eragin duen gerora sortutako arrazoiak adierazi beharko da, ezin zaiona egotzi onuradunaren doloari, erruari edo zabarkeriari.
- Ustekabeko kasua eta ezinbesteko kasua, halakorik gertatuz gero, kontuan hartuko dira eskatzen den luzapenari buruz ebazteko.
- Eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira: alegatutako arrazoiak egiaztatzen duen dokumentazioa, izandako edo izan beharreko atzerapena egiaztatzen eta justifikatzen duen dokumentazioa, eta, ondorioz, eskatutako luzapen-epea, bai eta dirulaguntza kudeatzeaz arduratzen den zerbitzuak eskatzea komeni dela uste duen beste edozein agiri ere.
- Ez da baimenduko alegatutako eta egiaztatutako atzerapena baino gehiago, betiere luzapen horrek emandako dirulaguntzaren helburua betetzea ahalbidetzen badu eta hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez badie.



4. Eskatutako luzapena ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hilabete (1) da, eskaera bulego birtualean aurkezten denetik. Epe horretan berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.

26. oinarria. Justifikazio-epea

1. Onuradunek organo instrukzio-egileari aurkeztu beharko diote ezarritako baldintzak bete direla eta dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako helburuak lortu direla egiaztatzen duen agiria, laguntza onartu eta hurrengo egunean hasiko den eta 2023ko martxoaren 31n, barne, amaituko den epean, oinarri hauetan ezarritako moduan.

2. Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek, dirulaguntzaren azken justifikazioaz gainera, bitarteko justifikazio bakarra aurkeztu dezakete.

3. Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak justifikazioa aurkezteko ezarritako epea luzatu ahal izango du, gehienez ere haren erdia, betiere alegatutako inguruabarrek hala gomendatzen badute eta horrekin hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Eskaera eta luzapenari buruzko erabakia justifikazio-epea amaitu baino lehen egin beharko dira. Alegatutako arrazoia gertatu eta berehala eskatu beharko da, eta, nolahi ere, justifikazio-epea amaitu baino gutxienez hilabete (1) lehenago. Berariazko ebazpenik jakinarazten ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.

4. Justifikazioa egiteko epea igaro eta dagokion instrukzio-organoaren aurrean ez bada aurkeztu justifikaziorik, organo horrek errekerimendua egingo dio erakunde onuradunari, hamabost (15) egun baliodunen epean aurkez dezan, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori ezingo da luzatu. Justifikazioa ez bada ezarritako epean aurkezten, dirulaguntza itzultzea eskatuko zaio onuradunari eta, gainera, Dirulaguntzen Foru Arauaren 37. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen diren gainerako erantzukizunak eskatuko zaizkio.

27. oinarria. — Azpikontratazioaren baldintzak

1. Honako hau joko da azpikontrataziotzat: onuradunak hirugarren pertsona batekin hitzartzen duenean dirulaguntzaren xedeko jardura oso-osorik edo zati bat egitea. Azpikontratazioaren kontzeptu horretatik kanpo gelditzen da onuradunak diruz lagundutako jardura bere kabuz gauzatzeko egin behar dituen gastuen kontratazioa. Aurrekoaren ondorioz, honako hauek ez dira azpikontrataziotzat joko: makineria, ekipamendua eta material suntsigarria erostea, dirulaguntzaren xedeko jardueraren barruko zeregin bereziak egiteko kanpoko zerbitzuen kontratazioa eta dirulaguntzaren xedeko jardueraren bestelako gastu osagarriak.

2. Onuradunak diruz lagundutako jardura azpikontratatu ahal izango du, diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren ehuneko 100 arte. Azpikontratazio-ehuneko hori egindako azpikontratu guztien baturaren arabera kalkulatzen da.

3. Inola ere ezingo dira azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua handitu arren jardura horri balio erantsirik ez dakarkioten jarduerak.

4. Onuradunak ezin izango du inola ere hitzartu diruz lagundutako jarduerak osorik edo partez egitea 5/2005 Foru Arauaren 27.7 artikuluan zehaztutako pertsona edo erakundeekin.

5. 4/2005 Legean eta 4/2018 Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera, dirulaguntzaren xedea gauzatzeko agintzen zaien erakundeek horietan aurreikusitako printzipio orokorrak eta 4/2018 Foru Arauaren 46. artikuluan jasotako betebeharrak errespetatu beharko dituzte.

6. Dena dela, azpikontratazioaren zenbatekoa handiagoa bada 9/2017 Legean kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak baino, onuradunak, gutxienez, hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez bada nahikoa erakunderik halakorik hornitu edo eskaintzen duenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.



7. Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan jaso beharko dira edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran, eta haien artean aukeratzeko, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak hartuko dira kontuan, eta, proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzeko ez denean, aukeraketa memoria batean justifikatu beharko da espresuki.

8. Beste batzuekin hitzarturiko jarduera hori dirulaguntzaren zenbatekoaren %20tik gorakoa bada, eta zenbateko hori 60.000,00 euro baino handiagoa bada, azpikontratazioak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Kontratua idatziz egin beharko da.
- b) Kontratua egin aurretik dirulaguntza eman duen erakundeak baimena eman beharko du, oinarri arautzaile hauetan ezarri den bezala.

9. Eskabideak proposatutako azpikontratazioaren baldintza nagusiak adierazi beharko ditu, eta Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak ebatziko du, bulego birtualean aurkeztu denetik hamabost (15) egun balioduneko epean. Epe hori amaitzean ebazpen espresua jakinarazten ez bada, administrazio-isiltasunez ezetsi dela ulertuko da.

28. oinarria. — Dirulaguntzak justifikatzea

1. Justifikazio-kontu baten bitartez frogatuko du onuradunak betetzen dituela ezarritako baldintzak eta lortu direla dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako helburuak.

2. Dirulaguntzaren justifikazioa Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez izapidetu behar da

3. Justifikazio-kontuak honako dokumentazio hau jaso behar du:

- a) Justifikazio telematikoa, Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualak sortua.
- b) Justifikazioaren txostena, webean eta Ekonomia Sustatzeko Saileko bulegoetan eskuragarri dagoen ereduaren arabera.
- c) Eskuragarri dagoen Langile Izendun Zerrenda RNT (aitzineko TC2a) berriena. Enpresari lotutako langile autonomoak badaude, pertsona bakoitzaren kotizazio-oinarrien azken txostena ere (eskuragarri dagoen azken hileko kotizazioa barne) eta bere banku-ordainagiria ere (autonomoen buletina) erantsiko du.
- d) Legezko baldintzak betetzen dituzten gastuen fakturak. Beste herri batzuetako fakturekin batera itzulpena aurkeztu beharko da, ingelesez eginda daudenak izan ezik. Leasing kasuetan, finantza errentamenduaren kontratuaren kopia, hornitzaileak finantza erakundeari egindako fakturaren kopia eta erosteko azken aukera hondar-balioarekin burutzeko konpromisoaren agiria (baina ez da aurkeztu beharrik izango finantza errentamenduaren kontratuan islatzen bada).
- e) Fakturen ordainketen frogagiriak. Ez da onartuko eskura ordaintzea.
- f) 5.12 oinarrian eskatzen diren hiru eskaintzak edo ordezkoko agiriak.
- g) Laguntzaren zabalitze egokia egiaztatzen duen dokumentazio grafikoa, 23. oinarrian adierazitakoaren arabera.
- h) Dirulaguntza emateko ebazpenean beren-beregi aurkezteko eskatu dena.

3. Gastuak justifikatzeko, fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan frogabaliobaliokidea duten edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako dokumentuak aurkeztu beharko dira, Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez aurkezteko aukera ematen duten formatuetan.

4. Dirulaguntza kalkulatzeko kostuak lau kategoriatan sailkatuko dira: kanpoko gastuak, inbertsioak, langileen barneko langileria-gastuak eta zeharkako gastuak. Proiektua justifikatzeko unean ikusten bada oinarri hauetan jasotako kostu-kategorietako batean onargarria den guztizko zenbatekoa txikiagoa dela dirulaguntza kalkulatzeko onartutako zenbatekoa baino, beste kategoria batzuetan gorako desbideratzeen bidez konpentsatu ahal izango da, kategoria bakoitzean esleitutako zenbatekoa gehienez %20 handituta, betiere dokumentu bidez behar bezala justifikatzen bada, eta muga izango da oinarri hauetan ezarritako gastu-kategoria eta -tipologia bakoitzeko gehieneko dirulaguntza ez gainditzea. Kostu-kategoria bakoitzari dagozkion laguntza-portzentajeen arabera kalkulaturako dirulaguntzatik justifikatu beharreko zenbatekoari dagokionez, guztira emanda-



ko dirulaguntzaren zenbatekoa edo gehiago justifikatu behar da. Bestela, ez-betetzearen ondoriozko prozedura hasiko da.

29. oinarria. — Dirulaguntza ordaintzea

1. Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, onuradunak justifikatu ondoren eman zen jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu dela, oinarri hauetan ezarritako moduan eta justifikatutako zenbatekoan. Gehienez ere bi (2) ordainketa egingo dira.

2. Erakunde onuradunei egiten zaizkien ordainketak diruz lagun daitezkeen gastutzat jotzen diren justifikatutako gastuen proportzionalak izango dira, urteko bakoitzean ematen diren kopuruak gorabehera. Kopuru hori aldi bakoitzean eman dena baino txikiagoa izan daiteke, eta, hala badagokio, egindako gastuaren proportzionala den dirulaguntzaren azken doikuntza egin behar da.

3. Dirulaguntza ordaindu baino lehenago, onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituztela egiaztatuko da, eta ez daudela dirua itzultzeraren behartzen duen ebazpen prozedura baten ondorioz zordunen artean. Egiaztapen horren ondorioz, ikusten bada onuradunak ez dituela egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, edo itzultzeko ebazpen baten ondorioz zorduna bada, ezin izango da dirulaguntza ordaindu.

3. Emandako dirulaguntza Beaz, S.A.U.-ren bidez ordainduko da, dirulaguntzaren eskabidean adierazitako kontu korrontera banku-transferentzia eginda.

30. oinarria. — Laguntzak metatzea

1. Foru Dekretu honetan jasotako laguntzak edo dirulaguntzak 651/2014 (EB) Erregelamenduan xedatutakoaren mende daude, eta, ondorioz, araudi hori ez betetzeak erantzukizun penala, zibila eta administratiboa ekar liezaioke enpresa arau-hausleari.

2. Diruz lagun daitezkeen eta identifika daitezkeen kostuak ezin izango dira honako hauekin pilatu:

- a) Estatutik etorritako beste edozein laguntzarekin, baldin eta laguntza-neurri horiek diruz lagun daitezkeen eta identifika daitezkeen kostu ezberdinetakoak badira.
- b) Estatutik etorritako beste edozein laguntzarekin —zati batean edo oso-osorik— diruz lagun daitezkeen kostu berberekoak badira, bakarrik pilaketa horrek laguntzen intentsitatea edo araudi horren arabera laguntza horri ezarri beharreko laguntza-kopururik handiena gainditzen ez badu.

3. Salbuetsitako laguntzak (654/2014 (EB) Erregelamenduarekin bat) ez dira pilatu-ko dirulaguntza jaso dezaketen kostu berberei dagozkien de minimis laguntzekin, baldin eta pilaketa horren ondorioz laguntzaren intentsitatea erregelamenduaren III. kapituluan eta Foru Dekretu honen 6. oinarrian ezarritakoa baino handiagoa bada.

31. oinarria. — Laguntzen bateragarritasuna

1. Foru Dekretu honen babesean emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazioek edo erakunde publikok zein pribatuk ematen dituzten dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

2. Hala ere, ez dira bateragarriak izango Bizkaiko Foru Aldundiak helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

3. Dirulaguntzen zenbatekoak, bera bakarrik edo beste dirulaguntza nahiz laguntzekin batera, ezin izango du, inola ere, onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua gainditu.

4. Onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu dituztela jakinarazi beharko diote Ekonomia Sustatzeko Sailari, horren berri izan bezain laster eta, nolahi ere, funtsei emandako erabilera justifikatu baino lehen, eta, hala badagokio, egindako itzulketaren gutunaren kopia erantsita. Hori guztia 5/2005 Foru Arauaren 18.3 eta 4. artikuluetan aurreikusitako



ondorioetarako, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izateko eta, hala badagokio, itzulketa-prozedura hasteko.

5. Ekonomia Sustatzeko Saila harremanetan jarri ahal izango da gainerako finantzatzaileekin, kofinantzaketa-hitzarmen bat egin ahal izateko.

32. oinarria. — *Pertsona onuradunen beste betebeharrak*

Honako betebeharrak hauek izango dituzte laguntzen onuradunek:

- a) Dirulaguntza emateko arrazoi den helburu, proiektu, jarduera edo jokaera lortu, burutu, egin edo hartzea.
- b) Ekonomia Sustatzeko foru diputatuaren aurrean edo erakunde laguntzailearen aurrean justifikatzea betekizun eta baldintzak betetzen direla, baita jarduera egin dela eta dirulaguntza emateko edo laguntzaz gozatu ahal izateko aintzat hartutako xedea bete dela ere.
- c) Kontabilitate liburuak, erregistroak eta gainerako agiriak egunean edukitzea — egin beharreko eginbide eta auditoriak eginda, alegia—, pertsona onuradunari kasu bakoitzean aplikatu beharreko merkataritza-legerian eta legeria sektorialean ezarritakoaren arabera, eta diru-laguntzen oinarri-arauetan eskatzen diren kontabilitate orri eta erregistro espezifiko guztiak edukitzea, egiaztapen eta kontrol ahalmenen erabilera egokia bermatzeko. Zentzu honetan, kontabilitateko erregistro bat eraman beharko du, diruz lagundutako proiektuari dagozkion diru-sarrerak eta gastuak bereiz identifikatu ahal izateko, dela kontabilitateko sistema berezi baten bidez, dela proiektuarekin lotutako transakzio guztietarako kontabilitateko kode egoki bat esleituz, 1303/2013 (EB) Erregelamenduaren 125.4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.
- d) Jasotako funtsen erabilera frogatzen duten agiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol ekintzetarako erabilgarriak izan daitezkeen neurrian.
- e) Oinarri hauetan jasotako hedapen-neurriak hartzea.
- f) Foru Arau honen 33. artikuluan jasotako egoeretan jasotako funtsak itzultzea.
- g) Baldin eta dirulaguntza emateko orduan kontuan hartu diren inguruabar objektibo edo subjektiboetatik edozein aldatu bada, aldaketa horren berri ematea dirulaguntza eman dionari.
- h) Foru Administrazioako organoek edo erakunde laguntzaileak eskatzen dieten laguntza eta dokumentazioa ematea, bai eta, Europar Batasuneko araudiaren arabera, finantza-kontroleko eginkizunak esleituta dituzten organoek ere. Horretarako, honako ahalmen hauek izango dituzte:
 1. Egiaztatu beharreko agiritara, euskarri informatikoan dauden programa eta artxiboak barne, iristeko askatasuna.
 2. Sarrera librea diruz lagundutako jarduera garatzen den edo dirulaguntzaren kargura finantzatutako eragiketen errealitatea eta erregularatasuna egiaztatzeke aukera ematen duten negozio-lokaletara eta gainerako establezimendu edo lekuetara.
 3. Fakturak, agiri baliokideak edo ordezkioak eta eragiketei buruzko beste edozein agiri atxikitzea edo kopia eskuratzea, baldin eta horietan dirulaguntza behar ez bezala lortu, baliatu edo erabili izanaren zantzuak ondorioztatzen badira.
 4. Dirulaguntzak kobratu diren edo funtsak erabili diren finantza-erakundeetako banku-kontuetako informazioa eskuratzeko askatasuna.

Laguntza emateko eta dokumentazioa emateko betebeharrak hori betetzeari uko egitea erresistentziatzat, desenkusatzat, oztopotzat edo negatibotzat joko da, 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, hala bada, gorkio, zehapenen kalterik gabe.



- i) Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen definizio, sarbide, kontratazio eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonal, lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzearen arloan, lanaren kalitate eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikal, ordezkaritza eta negozioazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak bermatuta.
- j) Zaintzea emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialean.
- k) Orobat bermatu egin beharko du neurriak hartuko dituela lan-arloan emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko, hari aurre egiteko, haren jarraipena egiteko, hura ebaluatzeko eta desagerrarazteko, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko.
- l) Deslokalizazioan ez erortzea. Enpresa deslokalizaziotzat jotzen da Enpresak deslokalizatzen direnean foru-sektore publikoak laguntzak berreskuratzeari buruzko martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauak ezarritakoa, eta Foru Dekretu honek arautzen dituen dirulaguntzei aplikatuko zaie foru-arau hori.
- m) Diruz lagundutako jardueraren inguruko jendaurreko agerpen guztietan euskara erabiltzea. Era berean, onuradunek beren jardueraren berri herritarrei emateko erabiltzen dituzten liburuxka, kartel edo beste edozein euskarritan bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuaren 13.3 eta 13.4 artikuluetan ezarritakoarekin bat.
- n) Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 8., 9. eta 10. artikuluetan gardentasunari eta publizitateari dagokie ezartzen diren betebeharrak betetzea. Erakunde pribatu hauei aplikatu behar zaizkie, arau horren 2. artikuluekin bat: aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euroren edo gehiagoren laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituztenei edo haien urteko diru-sarreraren %40 Aldundiaren laguntzetatik edo dirulaguntzetatik badator, betiere gutxienez 5.000 euro badira.
- ñ) Ekonomia Sustatzeko Sailaren jardueraren eragina ebaluatzeko, sail horrek enpresari proiektuak iraun bitartean zein proiektu amaitu eta osteko hiru (3) urteetan enpresaren bilakaera adierazten duten adierazle ekonomikoak eta enpleguari buruzko adierazleak nahiz proiektuak enpresan izandako eraginari buruzkoak aurkezteko eskatu ahal izango dio. Adierazle horiek aurkezteko epea, eskatzen zaizkion unean zehaztuko da.



ERANSKINA

JARDUERA EKONOMIKOEN ZERRENDA

3. oinarrian adierazitakoaren arabera, onuradun izateko, beste baldintza batzuen artean, enpresek EJSN-2009ko (apirilaren 13ko 475/2007 Errege Dekretua, apirilaren 28ko 102. BOEan argitaratua) epigrafe hauetakoren batean inskribatuta eduki behar dute euren jarduera ekonomikoetako bat. Halaber, 4. oinarriak adierazten du ez daitekeela diruz lagundu eranskin honetan jasotako epigrafeen barruan dagoen enpresaren jardueraren bati zuzenean lotuta ez dauden proiektuak.

- B atala: Erauzketako industriak.
- C atala: Manufaktura-industria.
- D atala: Indar elektriko, gas, lurrun eta aire girotuko hornitura.
- E atala: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa.
- F atala: Eraikuntza (talde hau izan ezik):
 - 41.1. taldea. Higiezen sustapena.
- G atala: Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa (multzo hau izan ezik):
 - 47. multzoa. Txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuak eta motozikletak izan ezik.
- H atala: Garraioa eta biltegiatzea.
- I atala: Ostalaritza (talde hau izan ezik):
 - 56.3. taldea. Edaritegiak.
- J atala: Informazioa eta komunikazioak.
- M atala: Jarduera profesionalak, zientifiko eta teknikoak.
- N atala: Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak (multzo hau izan ezik):
 - 80. multzoa. Segurtasun eta ikerketa jarduerak.
- P atala: Hezkuntza (multzo hau baino ez):
 - 85.6. multzoa. Hezkuntzako jarduera lagungarriak.
- Q atala: Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (multzo hauek baino ez):
 - 87. multzoa. Egoitzetako laguntza.
 - 88. multzoa. Ostaturik gabeko gizarte zerbitzuetako jarduerak.
- R atala: Arte, aisialdi eta denbora-pasako jarduerak (multzo eta talde hauek baino ez):
 - 90. multzoa: Sormen, arte eta ikuskizunen jarduerak.
 - 91. multzoa: Liburutegi, artxibategi eta museoetako jarduerak eta beste kultura jarduera batzuk.
 - 93.2 taldea: Aisialdi eta entretenimendu jarduerak.
- S atala: Bestelako jarduerak (multzo hau baino ez):
 - 95. multzoa. Ordenagailuen, norberaren gauzen eta etxeko gauzen konponketa.

Salbuespenez, interes nabarmena duten proiektuak direnean, aurreko epigrafeetan agertzen direnez bestelako jarduera nagusia duten enpresak ere onuradun izan ahalko dira, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuaren ebazpen arrazoituaren bitartez.